



Alicia Satué



Iruña-Veleia: Zenbait argibide, hain bat zalantza

Hizlaria Iruña-Veleiako grafitoetan ikusi duen latinaz mintzatuko da: III. mendeko Hispaniako iparraldeko eguneroko latinaz, hain zuzen ere, gaztelaniaren jatorria litekeenaz, oppidum horren kokapena kontutan harturik. Horrez gain, grafito polemiko horiei buruzko sarrera ere egingo die entzuleei hizlariak: Iruña-Veleia aztarnategian 2005-2006ko kanpainen arkeologoek aurkitutako latinezko eta euskarazko testuen aferaren inguruko laburpena egingo du: aferak arlo judizialean bukatu du, epaitegietan: zientzialariena izan beharko litzatekeena politikoen ardura bihurtu da, hori bai, zientzialari batzuen laguntzaz. Horregatik, galdera erretoriko batek irekiko du hitzaldia eta galdera berak bukatuko du: non ote dago Zientzia Iruña-Veleiako auzian? **“Zientziaren berri duen gizartea askeagoa eta manipulagaitzagoa da”**: gizarteak latina ez jakitea onuragarria izan omen da Iruña-Veleiako afera delakoan.

Alicia Satué, *El latín de Iruña-Veleia* (2013) txostenaren egilea, Salamancako Unibertsitatean Filologia Klasikoan Lizentziatua da eta gaur egun Mutrikuko institutuko latin irakaslea izateaz gain latin arruntaren arloan ikerketetan aritzen da Iruña-Veleia aztarnategian agertutako testuekiko bere jakinmina dela eta (III. mendekoak arkeologiaren arabera eta ustezko -bakarrik- faltsuak liratekeenak). Bere iritsiz, grafitoak benetakoak litezke beren hizkuntza ezaugarriei begira, imperio erromatarreko beste hainbat tokitan aurkitutako mota bereko epigrafiarekin bat datozelako.